



Lehiaren
Euskal Agintaritza

Autoridad Vasca
de la Competencia

PRENTSA-OHARRA

LEHIAREN EUSKAL AGINTARITZAK IKUSKAPENAK EGIN DITU AHOHKULARITZA-ENPRESA BATZUETAN, LEHIAKETA PUBLIKOETAN LEHIAREN AURKAKO ARAU-HAUSTEEN ZANTZUAK DAUDELAKOAN

Informazio-teknologietan adituak diren Ertzaintzako agenteen laguntza teknikoa izan dute ikuskapenek, baita Kataluniako Lehiaren Agintaritzaren laguntza ere.

Bilbo, 2017ko urtarrilaren 13a

Lehiaren Euskal Agintaritzak (LEA) ikuskapenak egin ditu euskal administrazioei aholkularitza-zerbitzuak ematen dizkieten enpresa batzuen egoitzetan, enpresek aurkezten dituzten eskaintzak alda litzaketelako, euren mesedetan baina interes orokorraren aurka.

Ikuskapenak urtarrilaren 11n hasi ziren eta urtarrilaren 12ko arratsaldera arte ez dira amaitu.

Ikuskapenak LEAko eta Kataluniako Lehiaren Agintaritzako funtzionarioek egin dituzte, informatikako adituen eta Ertzaintzako atal espezializatu baten laguntzarekin.

Miaketen xedea honako hau zen: adostasun, legez kontrako informazio-truke, kontratu publikoen banaketa-akordio eta aurkeztutako eskaintza-aldaketen frogak aurkitzea. Kontratazio publikoan lehia ezabatzeak kalitate-murrizketak eta kontratatutako zerbitzuen prezio-igoera dakartza eta, ondorioz, herritarrentzako kaltea sortzen du

Egindako ikerketak Eusko Jaurlaritzaren, aldundien, udal batzuen eta euren mendeko erakundeen dozenaka kontratuen azterketa eskatzen du, enpresek legez kontrako moduan alda litzaketelako.



Merkatua banatzeko lehiatzaileen arteko akordioak lehiaren defentsari buruzko araudiaren arau-hauste oso larriak dira. Enpresa arau-hausleen negozio-bolumen osoaren ehuneko 10era arteko isunak ekar ditzakete jokabide horiek.

LEAren lehentasunetako bat da jokabide horiek ikertzea, euskal kontsumitzaileentzako eta EAeko merkatuen funtzionamendu egokirako dituzten ondorioen larritasunagatik.

Ikuskapen horiek Lehiaren Defentsari buruzko Legearen balizko arau-hauste baten ierketa baten barruan daude. Ez du esan nahi ikerketen emaitza dagoeneko zehaztuta dagoela, ezta ikuskatuak errudunak direla ere.

Ikertutako jokabide horietan nahastuta izan daitekeen edozein enpresa isuna ordaintzetik salbuetsita egon daiteke edo horiei murriztu ahal zaie isunaren zenbatekoa froga berriak aurkezten badituzte.

Lehiaren Euskal Agintaritza izaera administratiboko erakunde autonomoa da, eta erakunde eta funtzio-autonomia du bere eginkizunak betetzeko. Bere helburu orokorra merkatuko lehia askearen eta gardentasunaren baldintzak sustatu, bermatu eta hobetzea da, Euskal Autonomia Erkidegoan egiten diren jarduera ekonomikoei dagokienez.